

# NHBBZ

Nafarroako Hezkuntza  
Bereziko Baliabide Zentro

## **Adimen gaitasun handiak dituzten ikasleen hezkuntza premiak ebaluatzeko prozesua**

Iñaki Martínez Urmeneta  
Carlos Ollo Oscáriz

Gobierno de Navarra. Departamento de Educación.  
ISBN:978-84-235-3164-6 Depósito legal: NA-1697-2009

Jokabidearen eta aparteko gaitasunaren modulua

Adimen gaitasun handiko ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duen 93/2008 Foru Agindutik heldu den lege-marko berrian sartzea aurrerapauso handi bat da, eta erantzun doituak eta bereziak ekarriko ditu.

Adimen gaitasun handiak dituzten ikasleek berariazko hezkuntza premiak dituzte, haiek nabarmenarazten eta bereizten dituztenak eta aurretik ezagutu behar direnak haiekin esku-hartzeko koherenteak eta kalitatezkoak egiteko. Jakina da oso zaila eta arriskutsua dela pertsona baten hezkuntza premiak identifikatu eta zehaztu nahi izatea ebaluaziorako prozedura egokituak eta fidagarriak aplikatu gabe. Hezkuntzako esku-hartzearen plangintza egiteko abiapuntua ikaslearen ezaugarri eta baldintzak eta hura harremanetan dagoen testuingurua baloratzeko eta aztertze prozesu exhaustibo bat izanen da.

Bestalde, hezkuntzako edozein esku-hartzetan –horren barne direla adimen gaitasun handiak dituzten ikasleei zuzendutakoak–, helburua ikaslearen garapen integrala eta orekatua baldin bada, ebaluazio-prozesuek pertsona bere orokortasunean hartu behar dute, eta hori egiteko, ezinbestean, haren ezaugarri guztiak nabarmendu behar dira. Ebaluazioak, horrenbestez, honako faktoreak hartu beharko ditu kontuan, besteak beste: garapen eta estilo kognitiboa, ikasteko prozesuak eta estiloak, curriculum-errendimendua, egoera eta estilo afektibo-emozionala, interesak eta motibazioak, gaitasun eta trebetasun sozialak, eta abar.

Gainera, erakundeak eta, oro har, gizartea aldatzen doazenez, gero eta beharrezkoagoa da hezkuntza arloko erabakiak eta neurriak gehienek onartutako irizpide unibertsalen arabera hartzea, haien bidez sistemari koherentzia emateko. Horrekin, gainera, honakoak erraztuko dira: hizkuntza komunaren erabilera, lanaren helburuaren eta esparruaren zehaztapena, informazioa eraginkortasunez helaraztea eta beste esparru batzuetan edo beste profesional batzuek hartutako neurriak ulertzea eta barneratzea. Hezkuntzaren arloko kalitate-estandarrak direla eta, adostutako prozeduretan eta aurretik baliozkotutako teknika fidagarrietan oinarrituriko protokoloak jarraitu behar dira.

Hurrengo orrietan, baldintza horietako batzuen erantzunak topatuko ditugu. Haietan, honakoak eman nahi zaizkie Nafarroako ikastetxeetako orientatzaileei:

- Beren ikastetxeetan adimen gaitasun handiko ikasleak atzemateko proposamen bat.
- Ebaluazio psikopedagogikoko planak egiteko irizpideak eta proposamenak.
- Identifikazio eta ebaluazio lanak errazteko landutako tresnak (eskalak, galde-sortak, probak, txosten ereduak...).
- Eskuragarri dauden proben zerrenda ordenatua (galde-sortak, testak, eskalak...). Datuak zabaltzeko edo planak zehazteko haietara jo daiteke.

Teresa Aranaz Jiménez. Directora General de Ordenación, Calidad e Innovación.

# AURKIBIDEA

## I. Sarrera

## II. Foru mailako arauak, autonomia erkidegoetako arauak eta estatuko arauak.

## III. Gaitasun handiak dituzten ikasleen hezkuntza premiak ebaluatzekeo prozesua.

### 1. Atzematea.

#### 1º. Justifikazioa.

#### 2º. Helburuak, ezaugarriak eta zailtasunak.

#### 3º. Atzemateko/zehazteko plana.

##### a. Plana diseinatzeko irizpideak.

##### b. Prozedurak

##### c. Tresnak

- Irakasleek izendatzeko galde-sorta.
- Ikaskideek izendatzeko galde-sorta.
- Gurasoek izendatzeko galde-sorta.
- Proba estandarizatuak.

##### d. Gaitasun handiak edo supergaitasuna duten ikasleen identifikazioa:

- Proba estandarizatuetak datuen analisia.
- Gomendatutako izendatze galde-sortetan eta, kasua bada, aukerako galde-sortetan, lortutako datuen analisia.
- Atzemate prozesuaren amaiera.

### 2. Ebaluazio psikopedagogikoa

#### 1º. Zertarakoa eta justifikazioa.

#### 2º. "Ebaluazio psikopedagogikoko plana" diseinatzeko irizpideak".

#### 3º. Ebaluazio psikopedagogikoaren faseak eta arloak.

##### a. LEHENENGO FASEA: IKASLEAREN EBALUAZIOA.

###### Helburua.

###### Ebaluatu beharreko arloak.

- Akademikoa eta kurrikularra.
- Kognitiboa eta adimenekoa.
- Sormena eta pentsamendu dibergentea.
- Sozio-afektiboa eta emozionala.

###### Prozedurak eta tresnak.

- Arlo kognitiboa eta adimenekoa ebaluatzekeo tresnak.
- Arlo akademikoa eta kurrikularra ebaluatzekeo tresnak.
- Sormena ebaluatzekeo tresnak.
- Arlo sozio-afektiboa eta emozionala ebaluatzekeo tresnak.

## **b. BIGARREN FASEA: TESTUINGURUAREN EBALUAZIOA**

**Helburua.**

**Ebaluatu beharreko arloak.**

- Eskolako testuingurua.
- Testuinguru soziala.
- Familiako testuingurua.

**Prozedurak eta tresnak.**

## **c. HIRUGARREN FASEA. BEHARREN ZEHAZTAPENA**

**Helburua.**

**Prozedurak eta tresnak.**

## **IV. Bibliografia.**

## **V. Eranskinak.**

- A ERANSKINA** (1 eta 2) "Gaitasun handiak atzemateko galde-sortak".
- B ERANSKINA** "Gaitasun handiko ikasleak taldean atzemateko prozesuetako datuen laburpena".
- C ERANSKINA** "Ebaluazio plana".
- D ERANSKINA** "Txosten psikopedagogikoa egiteko eredua".
- I. ERANSKINA** "Identifikaziorako eskalak eta galde-sortak".
- II. ERANSKINA** "Adimen jarrera orokorrei eta berariazkoei buruzko probak".
- III. ERANSKINA** "Oinarrizko buru-funtzioei buruzko probak".
- IV. ERANSKINA** "Ikasteko estilo kognitiboari eta potentzialari buruzko probak".
- V. ERANSKINA** "Errendimendu-proben zerrenda".
- VI. ERANSKINA** "Egokimen eta interes profesionalei buruzko probak".
- VII. ERANSKINA** "Sormenari buruzko probak".
- VIII. ERANSKINA** "Nortasunari eta bereizgarriei buruzko probak".

# Adimen gaitasun handiko ikasleak ebaluatzeko prozesua

## I. Sarrera

Hezkuntza zentroyen helburu nagusia da kalitatezko erantzunak ematea ikasleek dituzten hezkuntza premia anitz eta askotarikoei. Helburu hori betetzeko, ebaluazio prozesu baliagarri eta fidagarriak diseinatu eta abian jarri behar dira, hain zuzen ere erantzun horiek definitu eta zehazteko. Aniztasunari ematen zaion erantzuna (hau da, premia kolektibo nahiz banakako guztiei ematen zaiena) onena izatea lortuko genuke ebaluaziorako irizpide, prozedura eta tresna egokituagoak eta eraginkorragoak baldin baditugu.

Aniztasun horren zati handi bat da adimen gaitasun handien ondorioz hezkuntza premiak dituzten edo izan ditzaketen ikasleek osatzen dutena (eskola populazioan, gaitasun handien prebalentzia % 2 inguru da). Ikasle horiei dagokienez, ikastetxeek ebaluaziorako prozesuak, prozedurak eta tresnak hautatu beharko dituzte, batetik haien egokimen eta gaitasunaren norainokoa eta gradua eta, bestetik, garatzeko eta jarduteko aukerak zehazteko, bai eta gizarteko, familiako eta eskolako testuingurua haietarako egokia den (eskaintzan eta exijentzian) zehazteko ere.

Gida honekin ikastetxeei eta bereziki haietako orientatzaileei zenbait prozedura eta tresna eskaini nahi dizkiegu, adimen gaitasun handien arloko hezkuntza premiak zehazten laguntzeko. Gure aburuz, ebaluazio prozesuak bi fase dauzka, argi bereiz daitezkeenak: atzematea eta ebaluazio psikopedagogikoa.

## II. Foru mailako arauak, autonomia erkidegoetako arauak eta estatuko arauak:

### a) NAFARROAKO ARAU BERARIAZKOAK:

Nafarroako Foru Komunitateak, arau propiorik ez zuenez, Estatuko legeak aplikatu izan ditu, harik eta bere araua argitaratu duen arte: [http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/93/Anuncio-0/](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/93/Anuncio-0/). Arau horrek arautzen du haur eta lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun; gaitasun handiak dituzten ikasleei dagokienez, honako ekarpenak egiten ditu:

**1. artikulua. "Xedea":** Agindu honek aniztasunari erantzuteko hezkuntza neurriak arautu nahi ditu eta aniztasun horren barruan gaitasun handiak dituzten ikasleak sartzen ditu.

### **3. artikulua. "Aniztasunari erantzuteko printzipio orokorrak":**

4. idatz-zatia: "Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoak ahalik lasterren atzemanen dira, ikasteko arazoei aurrea hartzeko eta hezkuntza neurri egokiak hartzeko".

**4. artikulua. "Eskolatzea":** 2. idatz-zatia: "Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoak dituzten ikasleei erantzun egokia eman behar zaie eta haiek eskolatzeko beharko diren langileak eta baliabideak aurreikusi. Horretarako, ebaluazio psikopedagogikoa eginen zaie eta, behar izanez gero, eskolatzeko modalitatea proposatzeko edo/eta baliabideak eskatzeko txostena eginen da". 4. idatz-zatia: "Eskolatzekoaldian zehar hartzen diren erabakiak ikaslearen bilakaeraren arabera berrikusi eta aldatu ahal izanen dira, irakasleen ebaluazioak eta txosten psikopedagogikoak kontuan izanik".

**9. artikulua:** Berariaz aipatzen du ikastetxeetan egin beharreko "Aniztasunari Erantzuteko Planean", besteak beste honakoak jaso behar direla: Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoak atzeman eta baloratzeko irizpideak eta prozedura (2. puntua) eta Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoak identifikatu eta baloratzea. Hauek izan daitezke premia horien iturriak: ...gaitasun handiak... (4. puntua).

**IV. kapitulua. "Gaitasun handiko ikasleak":** Artikuluetan ikasle horien definizioa, eskolatzeko irizpideak, eta premien zehaztea eta ebaluazioa zehazten dira, bai eta erabili daitezkeen neurri arruntak eta bereziak eta neurri horiek aplikatzeko eta erregistratzeko prozedurak ere. (Ikus, berariaz, **18. artikulua**: "Gaitasun handiko ikasleen premiak zehaztu eta ebaluatzea").

## **b) BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUETAKO BERARIAZKO ARAUAK:**

Gainerako autonomia erkidegoetan gaitasun handiak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunari buruz berariaz egin diren arauak, oro har, malgutze-neurriak hartzen dituzte araz; arau horietan, behin eta berriz, aipatzen da adimen gaitasun handiko ikasleak eta haiek dituzten hezkuntza premiak atzemateko, identifikatzeko eta ebaluatzeko irizpide eta prozedura eraginkorrak erabili behar direla. Honakoak nabarmentzeko moduko ereduak dira:

### **Andaluzia:**

[INSTRUCCIONES de 27 de febrero de 2007](#). Arautzen ditu adimeneko supergaitasunarekin loturiko hezkuntza premiak dituzten ikasleen derrigorrezko eskolatzeko aldia ebaluatzeko eta malgutzeko prozedurak. Eranskinetan, eskariak eta txostenak prestatzeko ereduak ageri dira.

**Aragoi:**

[RESOLUCIÓN de 4 de septiembre de 2.001](#) Zenbait jarraibide ematen ditu adimeneko supergaitasunarekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat eskolako garaia malgutzeko eskaria egiteko, ebaluazio psikopedagogikoa egokitzeko, hartutako curriculum neurri berezien erregistro-sistema zehazteko eta hezkuntza-erantzuna orientatzeko.

**Kanariak:**

[ORDEN de 22 de julio de 2.005](#) Adimeneko gaitasun handiak dituzten ikasleentzako erantzuna arautzen du.

[RESOLUCIÓN de 21 de diciembre de 2.005](#) Garatzen ditu adimeneko gaitasun handiak dituzten ikasleentzako hezkuntza erantzuna arautzen duten prozedurak eta epeak.

**Gaztela eta Leon:**

[RESOLUCIÓN de 7 de abril de 2005](#) Haren bidez argitara ematen da "Adimeneko Supergaitasuna duten Ikasleei Erantzuteko Plana". 6. kapituluan, honakoak jasotzen dira berariaz: "Jarduteko neurriak" eta atzemateko eta diagnostikatzeko prozesuak eta prozedurak.

**Gaztela-Mantxa:**

[ORDEN de 15 de diciembre de 2003](#) Zehazten ditu adimeneko supergaitasuneko baldintza pertsonalekin loturiko hezkuntza premiak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna malgutzeko irizpideak eta prozedura.

**Extremadura:**

[ORDEN DE 27 de febrero de 2.004](#) Arautzen du adimeneko supergaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza erantzuna orientatzeko prozedura. Ebaluazio psikopedagogikorako eta identifikaziorako prozesuak eta prozedurak jasotzen ditu, eta txostenak eta eskariak egiteko eredu idatziak ematen ditu.

**Euskadi:**

[RESOLUCIÓN de 24 de julio de 1.998,](#) Aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen du.

**Galizia:**

[ORDEN de 28 de Octubre de 1996](#) Haren bidez arautzen dira adimeneko supergaitasuneko baldintza pertsonalekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen nahitaezko eskolatze aldia malgutzeko baldintzak eta prozedura.

**Madril:**

2001eko urtarrilaren 24ko ebazpena, adimeneko supergaitasuneko baldintza pertsonalekin loturiko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna arautzen duena.

[ORDEN, 70/2005, de 11 de enero](#) Arauak ematen ditu aparteko kasuetan, adimeneko supergaitasunaren ondoriozko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-irakaskuntzen iraupena malgutzeko.

**Murtzia:**

[Orden de 24 de mayo de 2005](#) Arautzen ditu adimeneko supergaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna orientatzeko prozedura, izapideak eta epeak.

**Valentzia:**

[ORDEN de 14 de julio de 1999](#) Kultura, Hezkuntza eta Zientzia kontseilaritzaren agindua da, eta honakoak arautzen ditu: adimeneko supergaitasuneko baldintza pertsonalen ondoriozko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen nahitaezko eskolatze-aldiaren iraupena, aparteko kasuetan, malgutzeko baldintzak eta prozedura.

**C) ESTATUKO ARAUAK:**

[RESOLUCIÓN de 29 de abril de 1.996](#) Adimeneko supergaitasuneko baldintza pertsonalekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna orientatzeko jarraitu beharreko prozedurak ezartzen ditu.


[RESOLUCIÓN de 20 de marzo de 1997](#) Adimeneko gaitasun handien edo supergaitasunaren ondoriozko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako malgutze-espeditateak aurkezteko epeak zehazten ditu.

[REAL DECRETO 943 de 18 de julio de 2003](#) Adimeneko supergaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza-sistemaren maila eta etapen iraupena malgutzeko baldintzak arautzen ditu.



### III. Gaitasun handiak dituzten ikasleen hezkuntza premiak ebaluatzeko prozesua

Gaitasun handiak dituzten ikasleekin esku hartzeko prozesuaren eskema



#### 1. Gaitasuna handiak dituzten ikasleak atzematea.

##### Zioak:

Atzemate eta laguntza goiztiarra guztiok onartutako gomendioetako bi dira, bai medikuntzaren esparruan, bai laguntzaren edo hezkuntzaren esparruan; ugari dira gaitasun handiak dituzten ikasleen hezkuntza premiak goiz atzematea garrantzitsua eta beharrezkoa izateko arrazoiak:

1. Adimen gaitasun handiak maiz lehen haurtzaroan agertzen dira, eskolatzearen lehendabiziko urteetan. Halakoak dituzten ikasleek arreta premia berariazkoak eduki ohi dituzte, eta ez da ez etikoa ez gomendagarria haiek erantzunik gabe uztea.

2. Gaitasun handiak ez dira beti ageri-agerikoak izaten. Honakoak dira ikasle batzuk taldean oharkabean pasatzearen arrazoiak, besteak beste: talde batekoa izatearen eta haren funtzionamenduarekin, interesekin eta gaitasunekin mimetizatzearen premia naturala, eta heldu eta ikaskide batzuen eragin "normalizatzailea". Ikasle horiek

bereizteko irizpide-prozedurak abian jarriz baizik ezin izanen ditugu ikasle horiek identifikatu, behar duten bezala lagundu ahal izateko.

3. Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzako hasierako mailetan, adimen gaitasun handiak dituzten ikasleek goiz barneratzen dituzten trebetasunak direla eta, halako moduan urruntzen dira beren ikaskideengandik non irakasleentzat ez baita beti erraza izaten jarduera-proposamen egokiak ematea, proposamen horiek ez bazaizkie ematen behar den ebaluazio psikopedagogiko baten ondorioz, behin adimen gaitasun handia atzeman ondoren.

### **Helburuak, ezaugarriak eta zailtasunak:**

Atzematea da taldeko ikasleen artean alde zuzenetik hautaturiko adierazle eta irizpide batzuk betetzen ote diren baloratzeko prozesua. Une jakin batean ikasgelan ateratako "argazkia" da; bertan, orokorrean, gaitasun handia edukitzaren seinale edo aztarnak ematen dituzten ikasleak nabarmenduko dira. Prozedura horren bereizgarria da, beraz, ikuspegiaren zabaltasuna (talde/maila oso bat hartzen du), tarteko faktoreetan gutxi sakontzea, exekuzioaren arintasuna eta erraztasuna eta baliabideen inbertsio puntuala. Prozesu propedeutikoa da, gainera: helburu du geroan banakako ebaluazioa beharko duten ikasleak bereiztea.

Atzemate-prozesua bi modutakoa izan daiteke: intuitibo/informala edo kontziente/planifikatua. Lehendabiziko kasuan, huts egiteko aukera handiak daude, profesional bakoitzak bere irizpide propioak dituelako, ez beti fidagarriak edo konpartituak. Bigarrenak alde aurreko gogoeta eta adostasuna sartzen ditu; horrekin, arbitrariotasuna eta joera-akats batzuen eragina gutxitu daitezke.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago atzemateak zenbait zailtasun badituela:

**1.** Ez da prozesu guztiahalduna: Ez ditu ikaslearen gaitasun handiak zehazten, eta are gutxiago haren hezkuntza premiak. Diseinatuta dagoen helbururako balio du: adierazteko zein ikasleak duten gaitasun handia edukitzeko aztarnaren bat eta, horrenbestez, zein ikasleri egin behar zaion aurrerago ebaluazio exhaustiboagoa eta pertsonalizatuagoa.

**2.** Atzemate-prozesuen emaitza prozeduren kalitatearen arabera izaten da. Maiz gertatzen da gutxi antolatutako prozesu baten edo azaleko prozesu baten ondoren, positibo faltsuak (gaitasun handiak zituztela ziruditen ikasleak, halakorik izan ez arren) eta negatibo faltsuak (atzeman ez diren ikasleak, gaitasun handiak izan arren) lortzea. Huts egite horiek gutxitzeko edo deuseztatzeko erabiltzen diren prozedurak eta tresnak hobetu eta egokitu behar dira, eta parte-hartzaileei aurretik prestakuntza eman behar zaie.

**3.** Atzemate-prozesuak ikasleen errendimenduak, jardunak, erantzunak, sorkuntzak eta abar behatuz eta erregistratuz hasten dira. Jokabide horien –eta beste edozein aldagai jarraituren– interpretazioan eta balorazioan subjektibotasun maila handia dago.

Adostutako adierazle eta irizpideak erabiliz, arbitrariotasunetik edo sinesmen oker eta estereotipoetatik heldu diren arriskuak asko gutxituko dira: arrisku horiek gutxitu ditzakegu, halaber, behatzaileen eta behaketen kopurua handituz.

**4.** Itxuraz uniforme den gaitasun handien kategoria horren barrenean, aniztasun handia dago, kasu bakoitza berezia eta bakarra izatea eragiten duena: errendimendu handiko ikasleen ondoan, beste batzuk topa ditzakegu, antzeko gaitasuna dutenak baina errendimendu eskasa dutenak, handikapak dituztenak eta arretarik edo diziplinarik ez dutenak, gutxiengoen kulturetakoak, klase sozial desberdinetakoak, sexu batekoak zein bestekoak eta abar.

Atzematerako hautatzen edo diseinatzen diren tresnek erraztasunak eman behar dituzte ikasle eta egoera mota guztietan gaitasun handietako adierazleak bereizteko, halako moduan non orokortzerako eta “halo efekturako” joera ongi ezagututa, salbuespena ez den sekula oharkabean pasako.

### **Atzemateko/zehazteko plana.**

#### **a. Plana diseinatzeko irizpideak:**

Aggen eta Kauchacken (1994) arabera, honakoak dira maizen gaitasun handiak atzemateko eta zehazteko erabiltzen diren prozedurak:

<b>Prozedurak</b>	<b>Maiztasuna</b>
Irakasleen izendapenak	% 70 - % 91
Ikaskideen izendapenak	% 6 - % 50
Gurasoen izendapenak	% 60
Nork bere burua izendatzea	% 65 - % 60
Banakako adimen testak	% 89 - % 90
Adimen test kolektiboak	% 64
Errendimendu eta exekuzio testak	% 78 - % 90
Eskolako kalifikazioak	% 50 – % 78

Adierazi beharra dago aipatu egileek atzemate-prozesuak eta zehazte-prozesuak parean jartzen dituztela. Gure ustez, ordea, bi kontzeptu dira: atzematea prozesua da eta zehaztea, berriz, emaitza.

Gure ikuspuntutik, honakoak dira atzemate/zehazte prozesu eraginkor batek bete behar dituen irizpideak:

1. **Zabaltasuna:** Atzematearen fokua ikasgelako taldea, zikloa edo ikastetxe osoa dira. Horrenbestez, proba kolektiboak eta taldeko ebaluazioak hautatuko ditugu, banakako probak hautatu beharrean.
2. **Arintasuna:** Atzemate prozesuak denbora-tarte labur bat hartu behar du. Ebaluazio ekintza bakar batean hautaturiko taldeko ikasle bakoitzari buruzko datuak lortu behar ditugu.
3. **Ekonomia:** diseinaturiko prozesuaren aplikazioak ahalegin eta baliabide gutxi eskatu behar ditu.
4. **Eraginkortasuna:** Ematen diren datuek balio behar dute hautapen-erabaki batzuk hartzeko, ebaluazio psikopedagogikoari begira. Positibo eta negatibo faltsuak ahal den guztian gutxitu behar dira.

Irizpide horiekin, izendatzeko galde-sorten erabileran eta proba estandarizatu kolektiboen aplikazioan oinarrituriko **atzemate / zehazte plan** bat proposatuko dugu.

## **b. Prozedurak:**

### **1. Irizpideetan oinarrituriko behaketa:**

- Irakasleek izendatzeko galde-sortak (**gomendatua**).
  - Ikaskideek izendatzeko galde-sortak (aukerakoa edo osagarria).
  - Gurasoek izendatzeko galde-sorta (aukerakoa edo osagarria).
- 2. Proba estandarizatuak.** Test faktorial bat aplikatzea (**gomendatua**).
- 3. Gaitasun handiak edo supergaitasuna izateko susmoa dagoen ikasleen identifikazioa.** (1.aren eta 2.aren emaitzen analisia eta haztatzea).

## **c. Tresnak:**

- **Irakasleek izendatzeko galde-sorta (gomendatua).**

Bibliografian honako ideia ageri da behin eta berriz: irakasleak ez dira informatzaile fidagarriak beren ikasleen artean gaitasun

handiak atzemateko orduan; gure ustez, trebetasun hori asko hobetu daiteke behaketa oinarritzeko irizpide eta adierazle egokiak edukiz gero.

Egile ugari arduratu dira horretaz, eta eskalak, galde-sortak eta inbentarioak sortu dituzte asmo horrekin. Honakoak dira gehien erabiltzen direnetako batzuk. ([Supergaitasuna eta gaitasun handiak identifikatzeko eskalak eta galde-sortak I. ERANSKINA](#)).

- "Eskalas para evaluar las características del comportamiento de los estudiantes con altas capacidades" (Renzulli eta beste, 1998).
- "Escala de evaluación de superdotados. GATES". (Gilliam et al, 1996).
- "Escala de detección de alumnos con altas capacidades. EDAC". (Artola eta beste 2003).
- "Cuestionario evaluación de inteligencias múltiples para profesores" (Beltrán, 2000).
- "Cuestionario de características a observar en los superdotados" (Freeman, 1988).
- "[Escala de observación para el profesorado](#)". EOPRO.(Escala de detección de Canarias)

**GATESen Eskalaren item batzuen ikuspegi partziala (50 item)**

1	Adierazlea	Batez bestekoaren azpitik			Batez bestekoan			Batez bestekoaren gainetik		
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	Egitateak arin ikastea									
8	Idea eta ebazpen sofistikatuak sortzen ditu									
15	Bere burua motibatzen du ikasteko									
17	Bere akatsak zuzentzen ditu									
21	Buruketarako ebazpen bakar/orijinalak aplikatzen ditu									
30	Pentsamendu dibergentea									
37	Bere ikaskideekin modu efektiboan egiten du lan									
48	Gaitasun artistikoak dauzka, inork horiek erakutsi gabe									

**Identifikazio** edo tresna horien ezaugarri komuna da banaka aplikatzekoak direla eta, horrenbestez, denboran, ahaleginetan eta baliabideetan gastu handia eskatzen dutela.

Halere, ez dugu tresna horien baliagarritasuna eta garrantzia ezertarako ere kendu nahi; izan ere, gure ideia da balorazio kolektiboa bideratuko duten prozedurak sortu eta erabiltzea, eta

horretarako irizpide hori zinez betetzen duten beste prozedura hauek erabiltzea:

- "Protocolo de detección de la sobredotación intelectual. Cuestionario para profesores". (1. Educación Infantil y 2. Educación Primaria). (Arocas eta beste, 2002).
- "Escala de observación de las características de los alumnos. Educación Primaria" (Monterde, 1998).
- VANEPRO-1 y 2. Valoración de las necesidades por el profesor. 1. Educación Infantil y 2. Educación Primaria y Secundaria (Del Caño eta beste, 2003).

Lehen Hezkuntzako irakasleentzako atzemateko galde-sortaren item batzuen ikuspegi partziala  
(38 item) Arocas eta beste (2002).

	Adierazlea	Ikasleen identifikatzailea (zenbakia, izena, inizialak...)									
1	Ideiak modu argi eta zehatzean adierazteko gaitasuna										
7	Arrazoiak emanez erantzuten du zerbait zergatik esan duen edo egin duen galdetzen diotenean										
14	Bere lanak independentziaz eta irakaslearen laguntza ia eskatu gabe betetzen ditu										
3	Matematikako buruketak arintasunez eta segurtasunez arrazoitzen eta ebazten ditu										
7	Ustekabeko iritziak izan eta konbentzionalak ez diren ikuspegiak defenda ditzake										

- **Adimen gaitasun handiak edo/eta supergaitasuna atzemateko galde-sorta** (CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroa. 2005) (**A ERANSKINAK**)

Proposatzen ditugun bi galde-sorta horiekin (A1 eranskina eta A2 eranskina) (bata errazagoa eta bestea deskriptiboagoa eta osoagoa), bilatzen dugu adimen gaitasun handiko ikasleen atzematea erraztea eta atzemate hori ikastetxeetan egiten diren ebaluazioko prozesu arrunt eta naturaletan kokatzea. Horrenbestez, "Aniztasunari Erantzuteko Planaren" testuinguruan kokatu behar da, haren beste prozedurekin batera.

Subjektibotasunak berez dakartzan joerak gutxitze aldera eta prozedurari fidagarritasun handiagoa emateko, galde-sortak betetzerakoan taldearekin edo gelarekin lan egiten duen irakasle-talde osoak partu hartu beharko du.

- **Ikaskideek izendatzeko galde-sorta** (aukerakoa edo osagarria).

Helduei oharkabean pasatzen zaizkien faktoreei eta trebetasunei arreta jarri eta haiek hauteman ohi dituzte ikaskideek; bereziki, horiek pertsonen arteko harremanen testuinguru naturaletan aplikatzen direnean. Ezagupen hori, behar bezala harrapatuz

gero, muntako datuak emanen ditu atzemate-prozesuari buruz. Honakoak dira horretarako diseinatu diren tresnetako batzuk:

- "Técnica de nominación entre iguales en Educación Infantil". "El cole del cielo" eta "La estrella Alfa" ipuinak (Arocas eta beste, 2002).
- "Cuestionario de nominación entre iguales. Alumnos/as de Educación Primaria". (Arocas eta beste, 2002).

#### **Lehen Hezkuntzako ikasleentzako galde-sorta** (Arocas eta beste, 2002)

##### **Honako ezaugarriak dituen mutiko edo neskato bat aurkitzen saiatuko gara:**

- Jolas hobeak asmatzeko gauza izanen litzateke...
- Asmatzaile onenaren saria banatuko balute, jaso egingen luke...
- Gainerako haurrok ikusten ez ditugun egoerak edo xehetasunak aurkitzen ditu...
- Galdera gehien egiten dituen eta jakin-min handiena erakusten duen haurra da...
- Antzerki lan bat egin behar izanez gero, haur horrek asmatuko du historiari onena...
- Haur horrek ongi egiten ditu gainerakook oraindik ere egiten ez dakizkigun gauza zailak...
- Haur horrek egoera edo buruketa zailak ebatzi ahal ditu

##### **HONAKOA DA MUTIKO EDO NESKATO HORREN IZENA:**

- **Gurasoek izendatzeko galde-sorta** (aukerakoa edo osagarria).

Atzemate prozesuan oso garrantzitsua eta balio handikoa da eskolako testuinguruaz kanpoko egoeretan agertzen diren eboluzio- eta egokimen-alderdiak. Familiarena da garapen goiztiarraren lehendabiziko sintomak argien beha daitezkeen ingurunea, eta gurasoak behatzaile eta informatzaile naturalak dira.

Guraso batzuek beren seme-alaben gaitasunak gehiegi edo gutxiegi balioesteko joera daukatenez, teknika hauen bidez lorturiko datuak beste batzuen iritziekin alderatu behar dira; bereziki, proba estandarizatuen emaitzekin.

Honakoak dira horretarako erabil daitezkeen tresnetako batzuk:

- "Cuestionarios para las familias. E. Infantil y E. Primaria". (Arocas eta beste, 2002)
- "Cuestionario de Inteligencias Múltiples para padres" (Prieto eta Fernández, 2001).
- "GATES. Escala de Evaluación de Superdotados". (Gilliam eta beste. 1996) (**I. ERANSKINA**)
- "Cuestionario para padres. Test de screening para la identificación temprana de niños de 4, 5, y 6 años con

## sobredotación intelectual” (Benito eta Moro, 2002). (**I. ERANSKINA**)

Adimeneko supergaitasuna duten 4, 5 eta 6 urteko haurren identifikazio goiztiarrerako screening testa  
(Y. Benito eta J. Moro. 2002)  
Item batzuen ikuspegi partziala

Mugimenaren garapena
Zenbat urterekin hasi zen ibiltzen?
Zenbat urterekin hasi zen hitzen bat letra larriz idazten?
Lengoaiaren garapena
Zein adinetan esan zuen lehenbiziko hitza?
Zure seme-alabaren hiztegia, aurreratua al da bere adinerako?
Autolaguntza
Zein adinetan hasi zen bere arropa aukeratzen?
Ba al daki guztiz janzen eta eranzten? Zein adinetan hasi zen?
Sozializazioa
Bere jolasetarako, nahiago al ditu bera baino nagusiagoak diren haurrak?
Garapen kognitiboa
Zein adinetan marrazten zuen gizakiaren figura (burua, gerrialdea eta gorputz-adarrak)?
Hasi al da irakurtzen? Zein adinetan hasi zen?
Interes handia al du inguratzen duten gauzengatik eta gauzen jatorriari buruz galdetzen al du? "Dena" ikasteko jakin-mina eta nahia al du?

### • Proba estandarizatuak

Adimenari buruzko teoria monolitiko faktorial edo hierarkikoetan eta eredu kognitiboak jarraitzen dituztenetan, batez besteko adimen trebetasuna ezinbesteko elementutzat jotzen da; izan ere, hura gabe ezin da supergaitasunaz hitz egin.

Adimenaren neurria, beraz, ezinbestekoa da atzemate-prozesuetan. Gure interesak (taldean aplikatzeko tresna erraz eta arinak erabiltzea) bat datoz proba faktorialen diseinuekin eta haiek aplikatzeko aukerekin. Horrenbestez, haiei emanen diegu lehentasuna. Garrantzia duen beste alderdi bat da proba horiek aukera emanen digutela supergaitasunaren aztarnak bereizteko, hain zuzen ere talentuen existentzia adieraz dezaketena. Esparru honetan gehien erabiltzen diren probak **II. ERANSKINEAN** jaso ditugu "[Adimen orokorrari eta berariazko egokimenei buruzko proba estandarizatuak](#)"; horien hautapen egokia egiteko, gutxienez ere honako irizpideak hartu beharko dira kontuan: adina, aplikatzeko denbora, modalitate kolektiboa, balorazio arloak eta ematen duen informazioa.

### d. Gaitasun handiak edo supergaitasuna duten ikasleen identifikazioa.

Arestian aipaturiko tresnak aplikatuz lorturiko datuak aztertu eta alderatu egin beharko dira, honako xedearekin: adimen gaitasun handia, supergaitasuna edo berariazko talentuak edukitzeko behar adina azterna dituzten ikasleak identifikatzea.



- **Proba estandarizatuetakoko datuen analisisa**

Analisirako eredu/adibide moduan, gomendatzen dugu Castellók (1998) BADyG eskalarako (zaharra) eta TTCTrako proposatzen duen identifikazio-prozedura.

Ikasle batek (hamabi urtez gorakoa) supergaitasuna duela joko da baldin eta neurtutako pertzentil guztietan 75 puntuazioa gainditzen badu.

Ikasle batek (hamabi urtez gorakoa) talentu bat duela joko da esparru horretan 95eko pertzentila gainditzen badu. Talentu aniztuna izateko (esate baterako, talentu akademikoa edo figuratiboa edukitzeko) gutxienez ere 80ko pertzentila lortu beharko da bi edo gehiagotan (ikus irudian talentu akademikoari edo figuratiboari buruzko errenkadak).

**BADyG-eko eta TTCT-ko ehunekoen banaketari buruzko taula, talentuak edo adimeneko supergaitasuna bereizteari begira (Castelló, 1998)**

	Hitzezk arrazoibidea	Zenbakizko arrazoibidea	Arrazoibide espazial	Sormena	Arrazoibide logikoa	Oroimena	Hitzez besteko arrazoibidea
Hitzezk talentua	<b>95%</b>						
Talentu matematikoa		<b>95%</b>					
Talentu espaziala			<b>95%</b>				
Sormenerako talentua				<b>95%</b>			
Talentu logikoa					<b>95%</b>		
Talentu akademikoa	<b>80%</b>				<b>80%</b>	<b>80%</b>	
Talentu figuratiboa			<b>80%</b>				<b>80%</b>
Adimeneko supergaitasuna	<b>75%</b>	<b>75%</b>	<b>75%</b>	<b>75%</b>	<b>75%</b>	<b>75%</b>	<b>75%</b>

- **Gomendatutako izendatze galde-sortetan eta, kasua bada, aukerako galde-sortetan, lortutako datuen analisisa.**

Gomendatutako izendapen-tresnetako batzuek zuzenketarako eta baloraziorako orientabideak ematen dituzte; beste batzuek, berriz, irizpide hori aztertzailearen eskuetan uzten dute.

Egokiena izanen litzateke talde bakoitzerako datuak erregistratzeko txantilo bat edukitzea (**B ERANSKINA** "[Atzemate prozesuan lortutako datuen laburpena](#)") Haren irakurketaren bidez, behar adina adierazle dauzkaten ikasleen zerrenda lortuko genuke.

- **Atzemate prozesuaren amaiera.**

Maiz gertatzen da prozedura desberdinen emaitzak bat datozela; halere, askotan gertatzen da emaitzak bat ez etortzea. Hori gertatzen bada, garrantzi handiagoa eman beharko zaio proba estandarizatuaren emaitzari (izan ere, printzipioz, objektiboagoa

da izendapenak baino). Hala eta guztiz ere, hori gertatuz gero, ebaluazio sakonagoa egin beharko litzateke, beste prozedura edo teknika batzuk erabiliz.

Behar adina adierazle dauzkaten ikasleak, bai aplikaturiko izendapenetarako galde-sortetan, bai proba estandarizatuan, **“Ebaluazio psikopedagogikoa egiteko daude”** izenburupean erregistratu beharko ditugu.

## **2. Ebaluazio psikopedagogikoa.**

### **Zertarakoa eta justifikazioa.**

Atzemate-prozeduren bitartez adimen gaitasun handien edo supergaitasunaren behar adinako adierazleak dituzten ikasleen zerrenda bat lortuko dugu; horien artean, askotan, “positibo faltsuak” egonen dira (egiaz adimen gaitasun handiaren edo supergaitasunaren irizpideak betetzen ez dituzten ikasleak). Horrelako huts-egiteak bereizteko eta berariazko hezkuntza premiak dauden ala ez dauden berresteko, esplorazio indibidualizatuagoak eta exhaustiboagoak egin beharko dira; horiek, izan ere, ebaluazio psikopedagogikoaren bidez zehaztuko dira. Hain zuzen ere, ebaluazio horren bidez definituko dira ikaslearen baldintza pertsonalak, akademikoak, sozialak, afektibo-emozionalak eta abar, bai eta une jakin bateko testuingurua ere.

Horrenbestez, horrela ulerturiko ebaluazioa sekula bukatzen ez den prozesu bat izanen da; aldaketa ebolutiboek, egoera pertsonal berriek, testuinguru sozialaren aldaketek... balorazio berriak eta testuinguruaren arabekoak eskatuko dituzte.

Ebaluazio psikopedagogikoaren azken xedea da erabakiak hartzeko prozesuan laguntzea, eta neurriak, proposamenak, programak eta gainerakoak lorturiko ebidentzien arabera hobeki egokitzea.

### **Ebaluazio Psikopedagogikoko Plana. Diseinatzeko irizpideak”**

**“Ebaluazio psikopedagogikorako plana” (C ERANSKINA)** delakoak ikaslearen baldintzak definitzeko eta haren hezkuntza premiak zehazteko muntakoak diren arlo guztiak hartu behar ditu; ikuspegiaren zabaltasun horrek ahal diren faktore guztiak banan-banan ebaluatu nahi izatearen huts-egitea ekar dezake, soilik beharrezkoak direnak baloratu beharrean, koherentziaz egin beharko litzatekeen bezala.

Renzullik proposaturiko ereduari jarraituz (hezkuntzaren praktikan gehien erabiltzen direnetako bat da), adimeneko egokimenak, sormena eta eginbeharrarekiko konpromisoa dira ebaluazio planean beti ageri behar diren faktoreak; izan ere, haien esplorazioa

lagungarri gertatuko da adimeneko supergaitasunaren edo adimen gaitasun handien hipotesiak berresteko edo gaitzesteko. Hala eta guztiz ere, ikaslearen hezkuntza premiak (halakorik badu) zehaztu nahi baditugu, horretarako muntakotzat jotzen gainerako beste faktore edo aldagaiak ere jaso beharko dira: alderdi akademiko-kurrilularra (exijentzia eta errendimendua); egokimenen garapena, estilo kognitiboa eta ikastekoa; heldutasun eta egonkortasun afektibo emozionala eta trebetasun sozialak; gizarteko, eskolako edo/eta familiako testuinguruko baldintzak, baldintzak eta aukerak eta abar.

Ebaluazio psikopedagogikoak bai pertsonan bai testuinguruaren faktore muntadunetan zentratutako prozesu bat izan behar du; horretarako, haren diseinua ikaslearen eta hurbileko ingurunearen berezitasunetara egokitu behar da, eta lehentasuna eman beharko zaio ekintza indibidualizatuen bitartez eta testuinguruaren araberrakoen bitartez hura gauzatzeari.

Adimen gaitasun handiak dituzten ikasleen kasuan, oso beharrezkoa da hautatzen diren ebaluazio-tresnek ikaslearen mailak eta gaitasunak esploratzeko bidea ematea, baita arauetan kasuko adin kronologikorako ezarritako mugen gainera ere. Proba bakoitzak baloratzen duen adin-tartea, berez, munta handiko irizpide bat da hura "Ebaluazio Planean" sartu ala ez sartu erabakitzeke garaian.

Esplorazioan erabilitako denbora eta ahalegina optimizatzeko eta hari etekin handiena ateratzeko xedez, komenigarria da halako neurketatresna batzuk erabiltzea, non daukaten diseinuarengatik eman behar duten informazioaz gainera, gaitasun handiko pertsonen funtzionamenduari buruzko bestelako datu muntadunak emanen baitituzte (oinarrizko buru-funtzioak, estilo kognitiboa eta buruketak ebazteke estrategiak, esfortzua, kontzentrazioa...). Hautaturiko tresnek horrelako datuak lortzeko biderik ematen ez badute, propio diseinaturiko erregistro, taula eta tresnekin osatu beharko ditugu.

Gaztelaniaz besteko kultura edo/eta ama hizkuntza (euskara eta beste batzuk) duten ikasleak ebaluatzeko, ikastetxeek ez dituzte tresna itzuliak edo barematuak edukitzen. Bestalde, badakigu ikasle horiek gaztelaniaz izan dezaketen konpetentziaren garapen txikiagoak emaitzak baldintza ditzakeela. Populazio horretan, "tresna-hizkuntzaren" faktoreak izugarritzko garrantzia dauka ebaluazio plana diseinatu eta probak hautatzeko garaian. Arazo horiei konponbidea emateko, ongi haztatu beharko dugu ikasleak probako tresna-hizkuntza zenbateraino menperatzen duen eta bietako bat aukeratu beharko dugu: edo proba gaztelaniaz egin, behar adinako gaitasuna baldin badu, edo euskaraz (edo beste hizkuntza batean) egin, gaztelaniaren hizkuntza-trebetasunak behar adina menperatzen ez baditu (halakoetan, egokituriko baremorik ez badugu, balioespen kualitatiboak baizik ezin izanen ditugu egin, eta gure inferentziek eta interpretazioek arrisku handiagoa izanen dute).

## **Ebaluazio psikopedagogikoaren faseak eta arloak:**

### **a) LEHENENGO FASEA: IKASLEAREN EBALUAZIOA.**

**Helburua:** Ikaslearen egokimenak, trebetasuna, konpetentziak, abileziak, errendimenduak, produkzioak... zehaztu.

### **Ebaluatu beharreko arloak:**

**A. Kognitiboa eta adimenekoa:** adimen gaitasun orokorrak, berriazko egokimenak, estilo kognitiboa.

**B. Akademikoa eta kurrikularra:** konpetentzia kurrikularraren maila, errendimendu akademikoa, esfortzurako gaitasuna, emaitzak, motibazioa eta interesak, ikasteko estiloa.

**C. Sormena eta pentsamendu dibergentea:** era askotako lanetan erakusten duen malgutasuna, jariakortasuna, orijinaltasuna, elaborazioa.

**D. Sozio-afektiboa eta emozionala:** ikaskideekiko edo beste ikasleekiko eta helduekiko pertsona-harremanak, trebetasun sozialak eta lidergoko trebetasunak, autokontzeptua eta autoestimua, integrazio-maila, egoera emozionala, antsietate arazoak, tristezia, suminkortasuna...

### **Prozedurak eta tresnak**

Ebaluazio Plana egiteko irizpideetan adierazi den bezala, ikaslearen baldintzak, trebetasunak, abileziak, gaitasunak etab. neurtzeko, berriazko prozedurak eta tresnak erabiliko dira, bereziki banaka aplikatzekoak direnak.

Honakoak dira ebaluazioaren fase honetan gehien erabiltzen diren prozedurak: irizpideen araberrako behaketa, test eta proba estandarizatuak, aztarna-erregistroen analisia, galde-sortak, inbentarioak eta eskalak, elkarrizketak eta proba soziometrikoak.

Merkatu psikoteknikoak aukera ugari eta askotarikoak eskaintzen ditu ebaluatu beharreko esparruetarako; hori dela eta, kasu eta egoera bakoitzerako egokiak diren tresnen hautaketa eginbehar latza izaten da batzuetan. Guk, izan ere, hura erraztu nahi izan dugu, **I., II., III., IV., V., VI., VII., eta VIII. ERANSKINETAN** asko erabili diren eta gaur egun Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko dokumentazio atalean eskuragarri dauden proba psikoteknikoen deskribapen bat emanez. Eranskin horietan, honako datuak ematen ditugu:

#### **1. Probaren izenburua, egilea eta argitaratze-urtea.**

2. Baloratzen dituen (edo baloratzen omen dituen) arloak edo faktoreak eta azpi-eskalak.
3. Gomendatutako adin-tartea.
4. Aplikatzeko modalitateak (banaka edo/eta taldeka).
5. Aplikazioaren gehieneko denbora.
6. Oharrak: eskaintzen dituen puntuazioak, exijitzen dituen eginbehar motak, aplikazio informatizatua nahiz eskuzkoa...

- **Arlo kognitiboa eta adimenekoa ebaluatzeko tresnak:**

- Gaitasun orokorra eta berariazko egokimenak: **II. ERANSKINA** "[Adimen orokorrari eta berariazko egokimenei buruzko proba estandarizatuak](#)"
- Oinarrizko buru-funtzioak (pertzepzioa, arreta, oroimena...): **III. ERANSKINA** "[Oinarrizko buru-funtzioei buruzko probak \(pertzepzioa, arreta, oroimena, psikomotrizitatea...\)](#)".
- Estilo kognitiboa: **IV. ERANSKINA** "[Ikasteko estilo kognitiboari eta potentzialari buruzko probak](#)".

- **Arlo akademikoa eta kurrikularra ebaluatzeko tresnak:**

- Gaitasun kurrikularren maila:
  - Errendimendu probak: **V. ERANSKINA** "[Errendimenduari buruzko proba estandarizatuak](#)"
  - Ebaluazio kurrikularren eskalak:
    - "Escalas de Educación Infantil: 1, 2 y 3 Teresa Huget",
    - "Escalas Additio-Grao".
    - "Escalas de evaluación curricular Escuela Española" (Martínez eta Calvo).
    - "Escalas EOS evaluación curricular".
- Gaitasun kurrikularra ebaluatzeko eskalak "[Primer ciclo de primaria](#)", "[Segundo ciclo de primaria](#)" y "[Tercer ciclo de primaria](#)". Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko Jokabidearen eta Supergaitasunaren Moduluak egokituak.
- **Ikasteko estiloak** (ikasteko erabiltzen dituen estrategiak, interesak, lehenetsunak eta motibazioak, lanarekiko konpromisoa, ikasteko erritmoa, autonomia maila, erabilitako lengoia motak...): Alderdi horien balorazioa behaketa

prozeduren eta jokabide eta produkzio akademikoen erregistroen bitartez egin daiteke; halaber, honako tresnak erabil daitezke:

- "LASSI. Inventario de habilidades de aprendizaje y estudio" (Weinstein eta beste 1988). Egokia 12 urtetik 16 urtera bitarteko haurrentzat.
- "IDEA. Inventario de estrategias de aprendizaje" (Vizcarro eta beste, 1996). Egokia 12 urtetik 18 urtera bitarteko haurrentzat.
- "CEA. Cuestionario de estrategias de aprendizaje" (Beltrán 1998). Egokia DBHko ikasleentzat.
- "ICES. Osagai estrategikoen inbentarioa" (Company, 1995). Egokia DBHko ikasleentzat.
- "[Ikasketa estiloa eta motibapenari buruzko galdetegia](#)". Egokia Lehen Hezkuntzako ikasleentzat (NHBBZ)
- Lanbide-interesak: DBHko eta batxilergoko azken ikasturteetan esploratu beharrekoa. **VI. ERANSKINA** "[Proba estandarizatuak eta egokimen eta interes profesionalei buruzko galde-sortak](#)"

- **Sormena eta dibergentzia ebaluatzeko tresnak:**

- Proba estandarizatuak: **VII. ERANSKINA** "[Sormenari buruzko proba estandarizatuak](#)"
- Erronka kognitiboko eta pentsamendu dibergenteko egoeretan jokabideak eta produkzioak behatu eta erregistratzea.

**Funtzionamendu dibergentea behatzeko jarduera-proposamenen adibidea**

**Buruketa: Urtegia.**

Urtegi batean 24 orduz behin bikoizten diren lore more batzuk sortzen dira. Lehendabiziko lorea agertzen denetik urtegia betetzen denera arte 60 egun igaroz gero, noiz beteko dute loreek urtegiaren erdia?

**Buruketa: Kutxak.**

Portzelanazko gauzen hiru kutxa dauzkagu: horietako batean "katiluak" etiketa dator; bestean "platertxoak", eta azkenekoan "katiluak eta platertxoak". Tamalez, etiketa guztiak okerreko kutxetan dauden jarriak. Kutxa bakarra hartuz gero, nola etiketa zenitzake beste biak?

**Buruketa: Zinema.**

Adiskide batzuk zinemara doaz, eta lau eserleku topatzen dituzte. Felipe Bakartxoren ondoan esertzen da, baina ez Gerardoren ondoan. Gerardo ez da Jonen ondoan eseriko. Nor eseriko da Jonen ondoan?

- **Ar-arlo sozio-afektiboa eta emozionala ebaluatzeko tresnak:**
  - ["Jokabideen behaketa eta errejistroak"](#), erlazioak eta produkzioak.
  - Ondokoei buruzko probak eta galde-sortak: [Elkartrukatzeko sozialari buruzko galdetegia](#), nortasuna, [autoconcepto](#) (Autokontzpetuaren eskalak, Piers Harris...), onarpen gradua, egoera emozionala eta abar: **VIII. ERANSKINA** ["Nortasunari eta ezaugarriari buruzko proba estandarizatuak, galde-sortak eta inbentarioak"](#)
  - Garrantzia duten helduei eta ikasleari berari eginiko elkarrizketak.
  - [Galdetegi Soziometrika](#).

## **b) BIGARREN FASEA: TESTUINGURUAREN EBALUAZIOA.**

**Helburua:** Eskolako, familiako eta gizarteko ingurunearen baldintzak, exijentziak eta aukerak zehaztea.

### **Ebaluatu beharreko arloak:**

- E. Eskolako testuingurua:** ikastetxearen antolaketa; espazioak eta taldeak; ikastetxeko eta ikasgelako giroa; irakasleen prestakuntza, esperientzia eta trebetasunak; ikastaldeko maila akademikoa; metodologia eta baliabide didaktikoak; curriculumeko exijentzia eta egokitzeko gaitasuna.
- F. Testuinguru soziala:** ingurune hurbilaren eskaintza soziala eta kulturala; gizartean integratzeko eta parte hartzeko aukerak; ikasleari buruzko kognizioak, atribuzioak eta igurikimenak.
- G. Familiako testuingurua:** seme-alabari buruzko kognizioak, atribuzioak eta igurikimenak; familiako egitura eta giroa; eskolaz kanpoko eskaintzaren erabilera; atzemandako premiak eta erreklamazioak; ikastetxearekiko jarrera eta lankidetzak.

### **Prozedurak eta tresnak**

Honakoak izaten dira testuinguruaren ebaluazioan gehien erabiltzen diren prozedurak, besteak beste: zuzeneko behaketa; dokumentuen eta produkzioen analisia; erkidegoaren baliabideen eta eskaintzen prospekzioa; garrantzia duten helduei eginiko elkarrizketak, eta galde-sortak.

Ingurune sozio-familiarreko eta eskolako ingurunekeo datu garrantzitsuak jasotzea bideratzen duten tresna batzuk badauden arren, egoera bakoitzaren berezitasuna dela eta, erregistro propioak diseinatzea izanen litzateke egokiena. Honako ereduak erabil daitezke:

- "Quafe-80" (Darder eta López 1984). Ikastetxearen analisia egiteko.
- "Modelo EFQM" (UE, 2000). Ikastetxearen analisia egiteko.
- "[Ikasleekiko komunikazio maila ikertzeko galdetegia](#)" (Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko Jokabidearen eta Supergaitasunaren Modulua).
- "FES. Clima social familiar". (Moos, 1984) Egokia adin guztietako ikasleen familientzat.
- "Guía para realizar la evaluación del contexto escolar" y "Guía para la evaluación del contexto familiar" (Arocas eta beste, 2002).
- "PEF. Escalas de identificación de prácticas educativas familiares" (García eta beste, 2003). Egokiak haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako haurren familientzat.

"Guía para la evaluación del contexto escolar y familiar" (Arocas y otros, 2002) delakoak baloratzen dituen arloak

<b>Eskolako testuingurua</b>
<u>Edukiak</u>
<u>Estrategia metodologikoak</u>
Jardueren zailtasun maila. Jardueraren egituratze maila. Erabilitako materialak. Taldeak. Espazioen antolaketa.
<u>Ebaluazioa</u>
Prozedurak.

<b>Familiako testuingurua</b>
Pertzepzioa.
Igurikimenak.
Seme-alabarekiko exijentziak.
Familiako harremanak (gurasoekin eta anai-arrebekin)
Eskolarekiko harremanak, jarrerak eta exijentziak.
Etxean arreta emateko eta erantzuteko aukerak.

**PEF** eskalak eskaintzen dituen elkarreraginezko egoera batzuk

*"Irudika ezazu zure familian zerbait gertatu dela. Zure seme-alaba ikastetxetik etorri berria da eta etxean urduritasun-giroa dago; telefonoak etengabe jotzen du eta jendea joan eta etorri dabil batetik bestera. ZER EGINEN ZENUKE? Eman itzazu erantzuteko sei aukera.*

*Irudika ezazu zure seme-alaba oso azkar datorkizula zerbait kontatzera: ikastetxean zigortu egin dute, eta jolas-ordurik gabe gertu da, eta errua beste batena dela dio. Irakaslearekin atsekabeturik eta amorraturik zaude" ZER EGINEN ZENUKE? Eman itzazu erantzuteko sei aukera.*



## C) HIRUGARREN FASEA. BEHARREN ZEHAZTAPENA

**Helburua:** Ikaslearen hezkuntza-premiak determinatu eta zehaztea.

### **Prozedurak eta tresnak:**

Behin ebaluazio psikopedagogikoa egin ondoren, lortutako datuak analizatu eta kontrastatu behar ditugu; prozesu hori erabili beharrean gaude, ezinbestez, ikaslearen hezkuntza-premiak zein diren zehazteko.

Ebaluazio psikopedagogikoaren emaitzak eta ondorioak ikaslearen espediente pertsonalari atxikitako txosten batean erregistratuko dira. Txosten hori erabakiak hartzeko eta behar diren hezkuntza neurriak hartzeko abiapuntua izanen da. (**D ERANSKINEAN:** "[Ebaluazio psikopedagogikoari buruzko txostenaren eredia](#)").

Honakoa izanen da lan egiteko ondorioztatzen den eskema:

- 1. LEHEN FASEKO** prozeduren emaitzak analizatzea, **ikaslearen supergaitasunaren edo gaitasun handien baldintza pertsonalak** zehazteko. (**D ERANSKINA**; C.1. atala)
- 2. BIGARREN FASEKO** prozeduren emaitzak analizatzea eskolako, familiako eta gizarteko **ingurunearen baldintzak, exigentziak eta aukerak zehazteko.** (**D ERANSKINA**; C.2. eta C.3. atalak)
- 3. Bi analisi horien emaitzak alderatzea, zehazteko zein diren une honetan ikaslearen hezkuntza-premiak eta premia pertsonalak.** (**D ERANSKINA**; D.1., D.2., D.3. eta D.4. atalak)
- 4. Premia horiei erantzuteko hartu beharreko neurriak zehaztea**<sup>1</sup>: arruntak edo bereziak. (**D ERANSKINA**; E.1., E.2. eta E.3. atalak).

Txosten psikopedagogikoa eginda, ebaluazio psikopedagogikoaren prozesua bukatzen da. Izan ere, ebaluazio hori abiapuntua izanen da plangintza prozesurako eta sistemak aurreikusten dituen hezkuntza-eta terapia-neurri arruntak edo bereziak abian jartzeko prozesurako.

<sup>1</sup>"Escala de evaluación SES", Pérezek eta Domínguezek (2001) egina ([I ANEXO](#)), erabakiak hartzeko prozesuan lagungarri gerta dakigukeen tresna da. Eskala horretan lortutako puntuazioen arabera, gomendatuko da ala ez da gomendatuko malgutzea edo neurri berezien aplikazioa.

## IV. Bibliografía.

ABAURREA, M.V. eta GARCIA, J.M. **Alumnado con Sobredotación Intelectual-Altas Capacidades.** *Orientaciones para la respuesta Educativa.* Hezkuntza eta Kultura Departamentua. Nafarroako Gobernua. 1997.

ACEREDA, A. eta SASTRE, S. **La superdotación.** Síntesis argitaletxea. Madrid. 1998.

ÁLVAREZ, B. **Alumnos de altas capacidades. Identificación e intervención educativa.** Síntesis argitaletxea. Madrid. 2000.

ARTILES C. eta beste. **Procedimientos e instrumentos para la detección e identificación del alumnado con altas capacidades intelectuales.** Universidad de Las Palmas. Las Palmas de Gran Canaria. 2005

ARTILES C. eta beste. **Orientaciones para la detección e identificación temprana del alumnado que presenta altas capacidades y su intervención educativa.** *Guía para profesionales de la educación.* Kanarietako Gobernua. Dirección general de ordenación académica. Las Palmas de Gran Canaria. 2003

BLANCO, M<sup>a</sup> C. **Guía para la identificación y seguimiento de alumnos superdotados.** Editorial CISS-PRAXIS. 2001

CASTELLÓ, A y MARTINEZ, M. **Los perfiles de la excepcionalidad intelectual.** S. Castañeda (Arg.). *Psicología Evolutiva. Teoría en la Práctica.* Mexiko: Manual Moderno, 2003.

CASTELLO, A. DE BATLLE, C. **Aspectos teóricos e instrumentales en la identificación del alumnado superdotado y talentoso. Propuesta de un protocolo.** FAISCA 6. 1998. 26-66.

ELICES, J.A. eta beste. **Necesidades educativas del alumnado superdotado. Identificación y evaluación.** Gaztela eta Leongo Junta. Hezkuntza Kontseilaritza. 2003.

JIMÉNEZ, C. **Diagnóstico y educación de los más capaces.** Ediciones UNED. 2001.

MARTÍN, J. eta GONZÁLEZ, M. (Koord.) **Alumnos precoces, superdotados y de altas capacidades.** Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. 2000.

PÉREZ L. F. (Koord.). **Alumnos con capacidad superior. Experiencias de intervención educativa.** Síntesis argitaletxea. 2006.

REGADERA A. eta SÁNCHEZ, J. L. ***Identificación y tratamiento de los alumnos con altas capacidades...*** Brief argitaletxea. 2001

# V. ERANSKINAK.

**(A) eranskina (1)**  
**Adimen gaitasun handiak edo/eta supergaitasuna atzemateko galde-  
sorta**

**Jarraibide orokorrak**

Atzemateko galde-sorta, taldean egitekoa, ikasturteko bigarren hiruhilekoaren ebaluazio saioetako batean bete beharko da. Saioan, ikasgelan esku hartzen duten irakasle guztiek hartuko dute parte, orientatzaileak koordinatuta; hain zuzen ere, orientatzailea izanen da adierazle bakoitza zehaztu eta definituko duena eta behar diren oharra jasoko dituena.

Erabakiak adostasunez edo gehiengoz hartuko dira; desadostasunik izanez gero, garrantzi handiagoa emanen zaio tutorearen iritzari edo, kasua bada, gelan ordu gehien ematen dituen irakaslearen iritzari.

Edozein eskola-mailatan bete badaiteke ere, eskola-urte bakoitzean beteko da, bereziki lehen hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara.

Behin protokoloa beteta, orientatzailearen eskuetan geratuko da, eta berak datuak analizatu eta puntuazioak lortuko ditu; azkenean, behar diren kasuak **“Diagnostikoa edo/eta balorazioa egiteke”** izeneko karpetara pasatuko ditu.

**Betetzeko jarraibideak**

1. Aztergai den ikasmilako ikasle bakoitzari zenbaki bat emanen zaio, ikastaldearen zerrendan duen ordenaren arabera.
2. Eskaintzen diren adierazleak arretaz irakurtzea, haien esanahia eta baldintzak ulertuta.
3. Ikasgelako ikasle batzuen adierazlean adierazitakoaren betetzea (nabarmentzekoa) analizatu eta baloratzea.
4. Hautaturiko ikaslearen (edo ikasleen) zenbakia (edo zenbakiak) galde-sortako kasuko laukitxoetan jartzea.

Ikasle bat hautatu soilik adierazlea argi eta nabarmentzeko moduan betetzen badu. Zalantza kasuan ez ezazu laukitxoa bete.

**Adierazleak analizatzeko irizpideak**

1. Adierazten den jokabidea edo baldintza askotan gertatu behar da, eta ikaslearen funtzionamenduaren ohiko estiloaren zati bat izan behar du.
2. Adierazten den jokabidea edo baldintza deigarria da, adin eta baldintza berak dituzten ikasleek adierazitakoaren aldean.
3. Adierazitako jokabidea edo baldintza gutxienez ere curriculumeko arlo edo esparru akademikoetako batean gertatu behar da (halakoetan, komeni da beste toki batean jasotzea zein arlotan gertatzen den).

## Adimen gaitasun handiak edo/eta supergaitasuna atzemateko galde-sorta

**Hezkuntza etapa:**

**Eskolako maila eta taldea:**

**Data:**

**Jarraibideak:** Irakurri arretaz deskribatzaileetako bakoitza eta aztertu ea ikasgelako ikasleren baten kasuan nabarmentzeko moduan betetzen den. Baiezekoan, idatzi ikasle horren edo ikasle horien zerrenda-zenbakia kasuko laukitxoetan. Soilik hautatu beharko dituzu itemetako bakoitzean “haur tipiko” batek (eskola-maila eta gizarte, familia eta kultura baldintza berdinak edo antzekoak dituen) adierazitakoaz nabarmenki gainetik dauden ikasleak.

	Deskribatzaileak	Ikasleen zerrenda-zenbakia			
1	Pentsamenduaren azkartasuna. Buru-arintasun handia.				
2	Motibazio eta iraunkortasun handia ahaleginean, lan konplexu eta erronka kognitiboak planteatzen direnean.				
3	Eduki edo jarduera berri edo zailak daudenean, arreta eta kontzentrazio handiak edukitzea.				
4	Datuak, terminoak, kontzeptuak eta edukiak azkar eta eraginkortasunez buruz ikastea.				
5	Jakin-min eta ezinegon handia gehiago jakiteko eta ulertzeko.				
6	“Helduen” gaiei buruzko galdera: traszendentzia, sexua, politika, giza eskubideak...				
7	Balio etikoengatiko kezka handia (ona eta txarra, zuzena eta okerra...).				
8	Zentzu kritiko handia eta iritzi propioa (maiz pertsonei, gauzei eta egoerei buruzko epaiak ematen ditu).				
9	Jakintzaren esparru desberdinetako ideiak eta kontzeptuak erraz erlazionatzen ditu.				
10	Aurretik adierazi gabeko bide eta konponbide orijinal eta ustekabeak aurkitzen ditu.				
11	Irudimentsua, orijinala eta sortzailea bere produkzioetan (grafikoak, plastikoak, literarioak, sozialak...).				
12	Perfekzionista eta autokritikoa; oro har, ez da pozik egoten bere produktu eta emaitzekin.				
13	Independentzia handia. Nahiago du bakarrik lan egin. Laguntza gutxi eskatzen du.				
14	Pertsonak, gauzak eta egoerak antolatzea gustatzen zaio.				
15	Hiztegi oso garatua dauka. Zehaztasun semantiko handia. Hitzeko arintasun eta adierazkortasun handiak.				
16	Irakurtzen eta idazten goiz ikasi du.				
17	Buruko kalkulu azkarra, baita kopuru handiekin eta eragiketa konbinatu edo konplexuetan ere.				
18	Errutinazko eginbeharretan eta errepikatzen direnetan aise aspertzen da.				
19	Oraindik ere landu ez diren curriculum-arloetako edukiak (kontzeptuak eta prozedurak) ezagutzen eta erabiltzen ditu.				
20	Interesatzen zaizkion gaiei buruzko informazio oso zabala dauka.				

## Adierazleen banaketa, arloka

	Deskribatzaileak	
a	Pentsamenduaren azkartasuna. Buru-arintasun handia.	Egokimenak. Estilo kognitiboa
b	Motibazio eta iraunkortasun handia ahaleginean, lan konplexu eta erronka kognitiboak planteatzen direnean.	Interesak eta motibazioa
c	Eduki edo jardura berri edo zailak daudenean arreta eta kontzentrazio handiak edukitzea.	Egokimenak. Estilo kognitiboa
d	Datuak, terminoak, kontzeptuak eta edukiak azkar eta eraginkortasunez buruz ikastea.	Egokimenak. Estilo kognitiboa
e	Jakin-min eta ezinegon handia gehiago jakiteko eta ulertzeko.	Egokimenak. Estilo kognitiboa
f	“Helduen” gaiei buruzko galdera: trszendentzia, sexua, politika, giza eskubideak...	Interesak eta motibazioa
g	Balio etikoengatiko kezka handia (ona eta txarra, zuzena eta okerra...).	Interesak eta motibazioa
h	Zentzu kritiko handia eta iritzi propioa (maiz pertsoneri, gauzei eta egoerei buruzko epaiak ematen ditu).	Egokimenak. Estilo kognitiboa
i	Jakintzaren esparru desberdinetako ideiak eta kontzeptuak erraz erlazionatzen ditu.	Sormena eta dibergentzia
j	Aurretik adierazi gabeko bide eta konponbide orijinal eta ustekabeak aurkitzen ditu.	Sormena eta dibergentzia
k	Irudimentsua, orijinala eta harrigarria bere produkzioetan (grafikoak, plastikoak, literarioak, sozialak...).	Sormena eta dibergentzia
l	Perfekzionista eta autokritikoa; oro har, ez da pozik egoten bere produktu eta emaitzekin.	Egokimenak. Estilo kognitiboa
m	Independentzia handia. Nahiago du bakarrik lan egin. Laguntza gutxi eskatzen du.	Egokimenak. Estilo kognitiboa
n	Pertsonak, gauzak eta egoerak antolatzea gustatzen zaio.	Interesak eta motibazioa
ñ	Hiztegi oso garatua dauka. Zehaztasun semantiko handia. Hitzeko arintasun eta adierazkortasun handiak.	Errendimendua
o	Irakurtzen eta idazten goiz ikasi du.	Errendimendua
p	Buruko kalkulu azkarra, baita kopuru handiekin eta eragiketa konbinatu edo konplexuetan ere.	Errendimendua
q	Errutinazko eginbeharretan eta errepikatzen direnetan aise aspertzen da.	Interesak eta motibazioa
r	Oraindik ere landu ez diren curriculum-arloetako edukiak (kontzeptuak eta prozedurak) ezagutzen eta erabiltzen ditu.	Errendimendua
s	Interesatzen zaizkion gaiei buruzko informazio oso zabala dauka.	Errendimendua

Hurrengo taulan, jaso itzazu, ordinalak erabiliz, aintzat hartutako lau arloetako bakoitzean izendapen gehien lortu dituzten ikasleak. Banakako izendapenen batura eman guztizkoari dagokion laukitxoan.

Ordena	Izen-abizenak	Adierazleen kopurua				Guztira
		Arloka				
		7	5	3	5	
1						
2						
3						
4						

## (A) ERANSKINA (2)

### **Adimen gaitasun handien edo/eta supergaitasunaren adierazleak atzemateko galde-sorta**

#### **Jarraibide orokorrak**

Ikasturteko lehen hiruhilekoan, ikastetxeetan ikaslearen funtzionamendu orokorrari begiratuko zaio. Erantsitako galde-sortarekin bilatu nahi da, testuinguru horretan, adimen gaitasun handiak edo/eta supergaitasuna dituzten ikasleen atzematea errazago gertatzea.

Ikastalde batean eskolak ematen dituen irakasle-talde osoari zuzendutako tresna bat da.

Erregistroak bidea emanen du lehentasunezko bost arlori dagozkien datuak lortzeko:

- (A) Estilo kognitiboa.**
- (B) Eginbeharrarekiko motibazioa, interesak eta inplikazioa.**
- (C) Sormena eta pentsamendu dibergentea.**
- (D) Ikaskuntzaren ezaugarriak.**
- (E) Garapen soziala eta emozionala.**

Aipatu arloetako bakoitzean letra lodiz jasotzen dira zenbakitutako adierazleak; adierazle horietan analizatu beharko dira adierazteko, izena emanaz, zein ikaslerengan betetzen diren behar beste.

Adierazle horien analisia errazteko, zenbait deskribatzaile eskaintzen dira, aintzat hartu beharreko adierazlearen esanahia azaltzen eta argitzen dutenak.

Irakasleek erregistroa egiteko tresna hori eduki beharko dute, erreferente gisa erabiltzeko lehen hiruhilekoaren behaketa egiten duten bitartean. Tresna hori, halaber, erabili ahalko da irakasleen taldeak aldian zehar egiten dituen kontrol- eta ebaluazio-bilerak errazteko elementu gisa.

#### **Prozedura**

1. Ikastetxeko orientatzaileak atzemateko galde-sorta irakasle guztiei eskuratuko die, eta behar diren azalpenak emanen ditu haren xedeari, irizpideei eta prozedurari buruz. Bilera horretan, kontzeptuei buruzko zalantzak argituko dira, adierazle bakoitzaren esanahia ulertze aldera. Galde-sorta betetzeko epeak ezarriko dira.
2. Irakasleek, adierazle bakoitzarekin batera doazen azalpenetako deskribatzaileen laguntzarekin, dagozkien ikasle-taldeen behaketa egingen dute.
3. Irakasle bakoitzak bere galde-sorta beteko du. Eskuineko laukitxoetan adierazle bakoitzaren betetzean argiki eta modu adierazgarrian nabarmentzen diren ikasleen zerrenda-zenbakiak idatziko ditu.
4. Lehen hiruhilekoko ebaluazio-bileran, lortutako informazio guztia “Adimen gaitasun handien edo/eta supergaitasunaren adierazleak atzemateko galde-sortan” idatziko da. Galde-sorta hori ikastetxeko orientatzaileak edukiko du. Orientatzaileak soilik idatziko ditu irakasle gehienek ustez adierazlea betetzen deneko ikasleen zenbakiak.



**(A) ERANSKINA (2)**  
**Adimen gaitasun handien edo/eta supergaitasunaren adierazleak**  
**atzemateko galde-sorta**

Hezkuntza etapa	Eskolako maila eta taldea	Data								
<b>(A) ESTILO KOGNITIBOA</b>										
<b>Adierazleak</b>		<b>Zerrenda zenbakiak</b>								
<b>A1</b>	<b>Pentsamenduaren azkartasuna. Buru-arintasun handia.</b>	<table border="1" style="width: 100%; height: 20px;"> <tr> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> </tr> </table>								
<ul style="list-style-type: none"> <li>Erraz ulertzen ditu ikasgelan azaltzen diren kontuak. Ez du bigarren azalpenik behar izaten.</li> <li>Arlo desberdinean landutako edukiak elkarrekin lotzen ditu.</li> <li>Galdera harrigarriak egiten ditu, azaldutako edukiez haratago doazenak</li> <li>Irakaslearen galderei erantzun konplexuak ematen dizkio.</li> </ul>										
<b>A2</b>	<b>Zorrotza behaketan. Gehientzat oharkabean pasatzen diren egoeretako xehetasunak eta esanahia harrapatzen ditu.</b>	<table border="1" style="width: 100%; height: 20px;"> <tr> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> </tr> </table>								
<ul style="list-style-type: none"> <li>Datu eta elementu ugari ikasten ditu horma-irudi, marrazki eta eszena grafikoetan.</li> <li>Ahozko nahiz idatzizko testuetako egitateen, egoeren eta pertsonaien xehetasun asko ikasten eta adierazten ditu.</li> <li>Gertaerei eta egoerei buruzko interpretazio egokiak eta orijinalak egiten ditu.</li> <li>Mezuen eta ironiazko adierazpenen zentzu bikoitzaz ohartzen da. Umore-sen nabarmena dauka.</li> </ul>										
<b>A3</b>	<b>Interesatzen zaizkion eduki edo jarduerak daudenean arreta eta kontzentrazio handiak edukitzea.</b>	<table border="1" style="width: 100%; height: 20px;"> <tr> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> </tr> </table>								
<ul style="list-style-type: none"> <li>Adi egoten da jarduera berriak eta gairen bat deskubritzekoak proposatzen zaizkionean.</li> <li>Erraz kontzentratzen da interesatzen zaizkion azalpenak eta jarduerak daudenean.</li> <li>Lan bat egiten kontzentratuta dagoenean, hura uztea kostatzen zaio.</li> <li>Etxean denbora hartzen du interesatzen zaizkion gaietan sakontzeko.</li> <li>Ikasgelan azaltzen diren gaietan informazioa (gainerakoentzat berria dena) ematen du.</li> </ul>										
<b>A4</b>	<b>Datuak, terminoak, kontzeptuak eta edukiak azkar eta eraginkortasunez buruz ikastea.</b>	<table border="1" style="width: 100%; height: 20px;"> <tr> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> <td style="width: 12.5%;"></td> </tr> </table>								
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ematen zaion informazioa abiadura handian ikasten du buruz.</li> <li>Harrigarria da gai batzuetan daukan informazioa.</li> <li>Denbora luzez erretenitzen ditu datuak.</li> <li>Erraz errepikatzen du informazioa hitzez hitz.</li> </ul>										

<b>A5</b>	<b>Ideaia abstraktu eta konplexuak ulertzen eta erabiltzen ditu.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere adierazpenen eta ideien konplexutasunarengatik eta heldutasunarengatik harritzen ditu besteak.</li> <li>• Ideiak eta kontzeptuak eskema zailetan alderatzen, analizatzen, antolatzen eta ebaluatzen ditu.</li> <li>• Erantzun sinpleak ematen zaizkionean, nahikoa ez dela adierazten du.</li> <li>• Gai filosofiko, transzendental eta abarrei buruzko galderak egiten ditu...</li> <li>• Sistema sinbolikoak (ahozko eta idatzizko lengoaia, lengoai informatikoa, musikala, beste hizkuntza batzuk, beste kode batzuk) arintasun handiz ikasten eta menperatzen ditu.</li> </ul>						
<b>A6</b>	<b>Jakintza esparru desberdinetako ideiak eta kontzeptuak erraz erlazionatzen ditu.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Curriculum arlo batzuetako edukiak eta estrategiak beste batzuetakoak ebazteko aplikatzen ditu.</li> <li>• Proiektuak eta lanak egiterakoan, arlo desberdinetako datuak eta prozedurak lotzen ditu.</li> </ul>						

**(B) EGINBEHARRAREKIKO MOTIBAZIOA, INTERESAK ETA INPLIKAZIOA**

Adierazleak							
<b>B1</b>	<b>Interesatzen zaizkion eginbeharretan motibazio eta iraunkortasun handia izaten ditu.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gauza da denbora luzez lan egiteko gaia erakargarri zaionean.</li> <li>• Eskura dagoen informazioa ematen du edo hura zabaltzea eskatzen du.</li> <li>• Kanpoko motibazio gutxi behar izaten du interesatzen zion gai batean lan egiteko.</li> </ul>						
<b>B2</b>	<b>Konponbideak bilatzen tematzen da, ez da atsekabetzen porrotaren aurrean, beste aukera batzuekin probatzen du.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zailtasun baten aurrean, bestelako aukerak bilatzea nahiago du, gogogabetu eta etsi beharrean.</li> <li>• Ez zaio gustatzen interesatzen zaizkion lanak bukatu gabe uztea.</li> <li>• Informazioa bere ekimenez bilatzen eta zabaltzen du.</li> </ul>						
<b>B3</b>	<b>Errutinazko eginbeharretan eta errepikatzen direnetan aise aspertzen da.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Deskonektatzen du eta aspertzen da irakasleak eduki bat berriz azaltzen duenean edo jarduera mekanikoak edo errefortzukoak egiten dituenean.</li> <li>• Ez ditu bukatzen teknikak eta prozedurak errepikatzeko oinarritutako ariketak.</li> <li>• Errutinazko ariketetan kalitate eskasa erakusten du eta akats asko egiten ditu (ongi egiteko gauza den arren).</li> </ul>						
<b>B4</b>	<b>Perfekzionista eta autokritikoa; oro har, ez da pozik egoten bere produktu eta emaitzekin.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Interesatzen zaizkion lanetan ideia ugari eta egituratze egokia erabiltzen ditu.</li> <li>• Atsekabeturik agertzen da bikainak ez diren kalifikazioen eta emaitzen aurrean.</li> <li>• Bere lanaren emaitzak bereganatzen ditu haien erantzukizuna onartzen du.</li> </ul>						
<b>B5</b>	<b>Interes handia dauka “helduen” gaiak direla eta: traszendentzia, sexua, politika, gaurkotasun soziala, giza eskubideak...</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikaskide gehienentzat ezinezkoak diren gaiak lantzen ditu.</li> <li>• Interesa erakusten du gai ugari eta askotarikoak direla eta.</li> <li>• Hurbileko eta urrutiko ingurune sozialeko gertaera eta egitatei buruzko iritzi propioak azaltzen ditu.</li> </ul>						
<b>B6</b>	<b>Kezka handia du balio etikoak direla eta: justizia, morala...</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorrotza da justizia aplikatzerakoan eta oso sentibera da era guztietako zuzengabekeriak direla eta.</li> <li>• Gatazkan parte hartzen dutenen ikuspegi desberdinak baloratzeko atribuzioak egiten ditu.</li> <li>• Gertaera sozial garrantzitsuei buruzko iritzi pertsonalak dauzka.</li> <li>• Interesa du eta eraginkorra da gatazkak eta arazoak erregulatu eta ebatzeko garaian.</li> </ul>						

## (C) SORMENA ETA PENTSAMENDU DIBERGENTEA

Adierazleak							
<b>C1</b>	<b>Jakin-min eta ezinegon handia gehiago jakiteko eta ulertzeko.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa eskatzeko galdera ugari egiten ditu.</li> <li>• Erraztasunake emanez gero, informazioa iturri desberdinetan (entziklopediak, internet...) bilatzen du.</li> <li>• Gauzen “zergatia” jakiteko beharra dauka.</li> </ul>						
<b>C2</b>	<b>Ikerketa, esperimendazio eta aurkikuntza jarduerak nahiago izaten ditu.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan egiteko proiektu zabaletan parte hartzea gustatzen zaio.</li> <li>• Atsegin zaio gailuen eta makinaren funtzionamendua aurkitzea eta deskubritzea.</li> <li>• Interes handia jartzen du informazioa bilatzeko, materialekin esperimendatzeko eta haiek manipulatzeko eta emaitzak egiaztatzeko.</li> </ul>						
<b>C3</b>	<b>Idea ugari izaten ditu ikasgelan planteatzen diren gai eta buruketetan.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Era askotako konponbideak bilatzen ditu buruketak ebazteko balderei erantzuteko.</li> <li>• Ikasgelan sorturiko arazo eta gatazketan era askotako konponbideak bilatzen ditu.</li> <li>• Informazio ugari dauka gai batzuei buruz eta kontzeptu ugari adierazten ditu.</li> <li>• Ohikoak ez diren galderak egiten ditu.</li> </ul>						
<b>C4</b>	<b>Aurretik adierazi gabeko bide eta konponbide orijinal eta ustekabeak aurkitzen ditu.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere ideien eta proposamen orijinaltasunarengatik eta berezitasunarengatik harritzen ditu besteak.</li> <li>• Buruketak ebazteko besteak bururatzen ez zaizkien estrategiak erabiltzen ditu.</li> <li>• Konponbidea alternatiboak bilatzen ditu.</li> </ul>						
<b>C5</b>	<b>Irudimen, orijinaltasun eta sormen handia dauzka bere produkzioetan.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahozko eta idatzizko testu oso irudimentsuak eta orijinalak sortzen ditu.</li> <li>• Beren adierazpen-kalitatearengatik (ideia, kolorea, xehetasuna, perspektiba...) nabarmentzen diren konposizio plastikoak egiten ditu. Material soilekin aparatuak asmatzen eta sortzen ditu.</li> <li>• Ikaskideek onartzen dituzten jolasak asmatzen ditu, eta batzuetan, jolasen arauak aldatzen ditu, jolas konplexuagoak egiteko.</li> <li>• Askatasunez sortzeko bidea ematen dioten eraikuntza-jokoak (legoak, mekanoa...) gustatzen zaizkio.</li> </ul>						

## (D) IKASKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Adierazleak									
<b>D1</b>	<b>Hiztegi oso garatua dauka. Zehaztasun semantiko handia. Hitzeko arintasun eta adierazkortasun handiak.</b>								
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sinonimoak, antonimoak, metaforak, konparazioak, esamoldeak... zehaztasunez erabiltzen ditu.</li> <li>• Lengoaiaren aberatsa du, eta urte gehiago dituela ematen du.</li> <li>• Askotan, zerbait definitzeko termino zehatza aurkitzen duena da.</li> <li>• Bere ideiak eta esperientziak argitasunez eta zehaztasunez azaltzen ditu.</li> </ul>								
<b>D2</b>	<b>Irakurmen maila handia eta irakurzaletasuna dauzka.</b>								
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Modu autonomoan ikasi zuen irakurtzen, ikaskide gehienek baino lehenago.</li> <li>• Haren irakurketa mekanikoa arina eta akatsik gabea da.</li> <li>• Idatzizko testuak oso azkar ulertzen ditu.</li> <li>• Asko irakurtzen du eta bere gaiak eta irakurgaiak hautatzen ditu. Bere adinari dagozkionak baino maila handiagoko liburuak hautatzen ditu.</li> </ul>								
<b>D3</b>	<b>Kalkuluak eta matematikako buruketak azkar eta segurtasunez ebazten ditu.</b>								
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko eragiketen mekanika ikaskideek baino lehenago ikasten du.</li> <li>• Buru-kalkuluan arintasun handia erakusten du.</li> <li>• Buruketak arrazoitzen ditu eta ebazpen-prozedura egokiak intuizioz hautatzen ditu.</li> <li>• Buruketa ebaztera iristen da tarteko urratsak egin gabe.</li> </ul>								
<b>D4</b>	<b>Oraindik ere landu ez diren edukiak ulertzen eta erabiltzen ditu. Batzuetan irakasleari azalpeni aurrea hartzen die.</b>								
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasgelan oraindik ere landu ez diren datuak dauzka eta erabili ez diren prozedurak erabiltzen ditu.</li> <li>• Mailako edukiei dagokienaren arabera espero daitekeena baino informazio gehiago dauka.</li> </ul>								
<b>D5</b>	<b>Interesatzen zaizkion gaiei buruzko informazio oso zabala dauka.</b>								
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gainerakoak harritzen ditu gai batzuetan, datu, erlazio eta iritzi ugari izateagatik. Litekeena da batzuetan ez erantzutea, besteen artean ez nabarmentzeagatik.</li> <li>• Aukera ematen zaionean, eduki ugari lanak eta proiektuak aurkezten ditu.</li> </ul>								
<b>D6</b>	<b>Bakarrik ikasten du. Nahiago du bakarrik lan egin. Laguntza gutxi eskatzen du.</b>								
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ia inoiz ere ez du argipenik eskatzen, ez eta bigarren azalpenik ere.</li> <li>• Bere lana eta eginbeharrak autonomiaz antolatzen eta egituratzen ditu.</li> <li>• Proiektu bateko urratsak denbora-sekuentzia egoki baten arabera antolatzen ditu.</li> <li>• Eduki kontzeptualak eta prozeduretakoak modu autonomoan bereganatzen ditu.</li> </ul>								
<b>D7</b>	<b>Barneratutako ikaskuntzak eduki eta era guztietako egoeratan aplikatzen ditu.</b>								
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arlo desberdinetan teknika eta prozedura jakin batzuk erabiltzen ditu.</li> <li>• Bere ezagupenak ikaskuntzari dagokionez bestelako egoeretan aplikatzen ditu.</li> </ul>								

## (E) GARAPEN SOZIALA ETA EMOZIONALA

Adierazleak							
<b>E1</b>	<b>Pertsonak, egoerak eta gauzak antolatzea gustatzen zaio. Lidergorako joera.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartzen duen jarduera eta jokoak antolatzeko eta zuzentzeko joera dauka.</li> <li>• Ikaskideek onartzen dute eta aintzat hartzen dute; batzuetan, liderraren eginkizunak aitortzen dizkiote.</li> <li>• Gauza da jardueren antolaketan sekuntziak ezarri eta lehenetasunak jartzeko.</li> </ul>						
<b>E2</b>	<b>Zentzu kritiko handia eta iritzi propioa (maiz egitateei, pertsoneri eta egoerei buruzko epaiak ematen ditu).</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Iritzi propioak azaltzen ditu gaurkotasuneko egitateei eta gertaerei buruz.</li> <li>• Epai arrazoituak ematen ditu ikaskideen eta helduen jardueri buruz.</li> <li>• Zorrotza da justizia aplikatzerakoan eta oso sentibera da era guztietako zuzengabekeriak direla eta.</li> <li>• Ez ditu besteren arrazoitu gabeko ezarpenak jasaten.</li> </ul>						
<b>E3</b>	<b>Helduekin nahiz adin handiagoko haurrekin harremanetan jartzeko joera dauka.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunikatzeko eta arrazoitzeko trebetasunak erabili behar diren kasuetan, estrategia-jokotan, jardun intelektualetan, nahiago izaten du ikasle helduagoekin egon.</li> <li>• Helduen elkarrizketengatik interesa dauka, eta haietan parte hartzen du, konpetentziarik gabe.</li> <li>• Urte gehiago dituzten ikaskideek onartu egiten dute.</li> <li>• Bere adiniko taldekoen interesez bestelakoak dauzka.</li> </ul>						
<b>E4</b>	<b>Erantzukizunak ongi onartzen ditu.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konfiantza eduki daiteke, eginen duela agindu duen hori eginen baitu.</li> <li>• Espero daitekeenaz haratago doazen erantzukizunak onartzeko gai da.</li> <li>• Bere egintzen emaitzak eta ondorioak onartzen ditu.</li> <li>• Eskatzen bazaio, irakasleekin eta ikaskideekin lankidetzan jarduten du.</li> </ul>						
<b>E5</b>	<b>Bere aukeretan konfiantza dauka eta segurtasuna dauka bere buruaz. Pertsuasiorako gaitasun handia dauka.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ia ez die laguntzarik eskatzen irakasleei. Independentea da.</li> <li>• Erabaki arrazoituak hartzen ditu eta bururaino eramaten ditu.</li> <li>• Lengoaia erabiltzen du bere ideiez eta proiektuez ikaskideak eta helduak konbentzitzeko</li> <li>• Erronkak onartzea gustatzen zaio.</li> <li>• Bere ideiak besteei ezartzeko joera dauka.</li> </ul>						
<b>E6</b>	<b>Egoera eta aldaketa berrietara azkar egokitzen da.</b>						
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erraz egokitzen da aldaketetara. Errutina-aldaketak ez zaizkio trabagarri gertatzen.</li> <li>• Ez du ideia edo prozedura batekin tematzen, huts egitea erakusten bazaio edo aurkitzen badu.</li> <li>• Bere jokabide soziala eta hitzekoa mintzakideen eta egoeren arabera egokitzen ditu.</li> <li>• Egoera zailak arinago gainditzeko gauza izan daiteke: senideren baten dibortzioa, heriotza...</li> </ul>						

**(B) eranskina**  
**“Atzemate prozesuan lortutako datuen laburpena”**

<b>Ikastetxea:</b>	<b>Hezkuntza maila:</b>	<b>Taldea:</b>
--------------------	-------------------------	----------------

**1. Atzematerako erabili diren prozedurak eta tresnak.**

Prozedura		Tresna	Arduraduna	Data
Adimen egokimenei buruzko proba estandarizatua				
Izendapenak	irakasleak			
	ikaskideak			
	gurasoak			

**2. Adimen gaitasun handien adierazleak atzeman zaizkien ikasleak.**

Ikaslearen identifikazioa	Adierazlerik badago / ez dago							
	Proba		Irakaslearen izendapena		Berdinen izendapena		Gurasoen izendapena	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ

**3. Ebaluazio psikopedagogikoa egiteko dauden ikasleak.**

Ikaslearen identifikazioa	Ebaluatu beharreko arloak (aipatu)				

**Ebaluatu beharreko arloak:** Adimeneko egokimenak, egokimen berariazkoak, eskolako errendimendua, trebetasun sozialak, estilo kognitiboak, sormena, familiako testuingurua, eskolako testuingurua...

**(C) eranskina**  
**Ebaluazio psikopedagogikorako plana**

<b>Ikaslea:</b>	<b>Ikasmaila:</b>
-----------------	-------------------

<b>Arloak</b>	<b>Tresna</b>	<b>Arduraduna</b>	<b>Data</b>
<b>Egokimen orokorrak eta berariazkoak</b>			
<b>Curriculum gaitasuna</b>			
<b>Estilo kognitiboa eta ikastekoa</b>			
<b>Arlo afektibo- emozionala eta soziala</b>			



## (D) eranskina

### Ebaluazio psikopedagogikoari buruzko txostenaren eredia

#### A. DATU PERTSONALAK

**Izena:**

**Ikasmaila:**

**Tutorea:**

**Hizkuntza eredia:**

**Jaiotza-eguna:**

**Ikastetxea:**

**Orientatzailea:**

**Txostenaren data:**

#### B. TXOSTENAREN ARRAZOIA

#### C. EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOAREN DATUAK:

##### C.1. **Ikasleari buruzko informazioa** (erabilitako teknikak, emaitzak eta ondorioak):

- Garapen kognitiboa – adimeneko egokimenak
- Curriculum gaitasunaren maila, arloaren arabera
- Sormena
- Ikasteko estrategiak eta prozesu kognitiboak
- Esfortzua, motibazioa eta interes akademikoak
- Elkarreragina (helduekin eta berdinekin) eta gizarteratzea
- Egoera emozionala

##### C.2. **Eskolako testuinguruari buruzko informazioa** (erabilitako teknikak, emaitzak eta ondorioak):

- Irakasleen kognizioak eta igurikimenak
- Gelaren eta zikloaren antolaketa
- Curriculumaren malgutasun maila (bikaintasuna)
- Erabilitako estilo didaktikoak eta baliabideak
- Esperientzia profesionala
- Dibergentziak aplikatzeko aukerak
- Exijentzia kurrikularraren maila.

##### C.3. **Gizarteko eta familiako testuinguruari buruzko informazioa** (erabilitako teknikak, emaitzak eta ondorioak):

- Gurasoen pertzepzioa eta igurikimenak. Haurrarekiko exigentzia-jarrera
- Familiako harremanak (gurasoak, anai-arrebak)
- Eskolari buruzko jarrera. Harremanak, lankidetzak eta exigentzia
- Eskolaz kanpoko garapenerako aukerak
